

**TOKIKO AGENDA 21EKO  
FOROAREN AKTA**

**ACTA  
FORO AGENDA LOCAL 21**

**Bilera-mota:** Ohikoa.

**Eguna:** 2006-02-02

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Legazpiko Udaleko Udalbatza Aretoa

**Tipo de Convocatoria:** Ordinaria.

**Día:** 02-02-2006

**Hora:** 18:30

**Lugar:** Salón Plenos Ayuntamiento Legazpi

**Bertaratuak/ Asistentes:**

Juan Ramón Larrañaga (Alkatea), Bixente Garmendia (Ingurumeneko zinegotzia/ Concejal Medio Ambiente), Jose Luis Zabaleta (Industria eta Hezkuntzako zinegotzia/ Concejal Industria y Educación), Alonso Francés (Aparejadorea), José Ignacio Gil (Ur Kontsortzioa), Joxan Auzmendi (CEIDA), Nieves Guillen (Domingo Agirre ikastetxea), M<sup>a</sup> Carmen Mendizabal (Domingo Agirre ikastetxea), Arantxa Segurola (Haztegi Ikastola), Montse Vallejo (Olazabalgo Guraso elkarte), Maite Lázaro (Olazabalgo Guraso elkarte), Floren Gutiérrez (herritarra / vecino), Pedro Rodríguez (CCOO), J.I. Kaspistegi (herritarra / vecino), Emilio Cámara (Buskabaso), Juan José Salegi (Bellota Herramientas, S.A.), Javier Iraeta (GKN Driveline Legazpi SA), Begoña Lekue (IRATZARRI), Inés Corral (IRATZARRI), Belen Madinabeitia (Brinkolako auzo elkarte), Josune Macaya (UGGASA), Juanmi Urrutia (herritarra/ vecino), Zorione Aierbe (Prometea), Iciar Montejo (Prometea), Goya Callejo (herritarra / vecina), Amaia Fernandez (herritarra /vecina), Sole Arostegi (herritarra/ vecina), Juan Carlos Altzelai (herritarra/ vecino), Koldobike Olabide (Mirandaola Servicios Medioambientales, SL.), Milagros Noguera (herritarra/ vecina), Martin González Ausin (herritarra/ vecino), Felix Dorronsoro (herritarra/ vecino), Fermín Zumalde (herritarra/ vecino), Pilar Galfarsoro (herritarra/ vecina), Eider Larrañaga (SAYMA MINUARTIA) eta Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria).

**Aztergaiak:**

1. 2001-2004 epealdirako Ekintza-Planaren ebaluazioa.
2. 2006. urterako aurreikusita dauden ekintzak.
3. Eskariak eta galderak.

**Esan-eginak eta erabakiak:**

**1.- 2001-2004 epealdirako Ekintza-Planaren ebaluazioa.**

Eider Larrañaga andereak Legazpiko Agenda 21eko lehen ekintza-plana ebaluatzeko erabili diren irizpideak eta helburuak adierazi ditu. Ekintza gehienak epe motzekoak eta lehentasun handikoak dira; horrek esan nahi du Plana udalerraren benetazko beharrei erantzuteko diseinatu zela.

**Orden del Día:**

1. Evaluación Plan de Acción 2001-2004.
2. Acciones programadas para 2006.
3. Ruegos y preguntas.

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1.-Evaluación Plan de Acción 2001-2004.**

Eider Larrañaga explica los objetivos y criterios utilizados para evaluar el primer Plan de Acción de la Agenda 21 de Legazpi. Señala que la mayoría de las acciones se contemplaron a corto plazo y con un nivel alto de prioridad, lo cual indica que el Plan se diseñó muy ligado a las necesidades reales del municipio.

**TOKIKO AGENDA 21EKO  
FOROAREN AKTA**

**ACTA  
FORO AGENDA LOCAL 21**

Lerro estrategikoei erreparatuz gero, hauek izan dira gehien garatu direnak: 4. lerroa (ura), 2.a (hiri-eremuaren kalitatea) eta lehenengoa (natura-guneak). Gehiago landu behar dira lerro hauek: 9.a (kutsatutako lurrak), 10.a (udal-kudeaketa), 11.a (sentsibilizazioa eta parte-hartzea) eta 12.a (dibertsifikazio ekonomikoa). 8. lerroa (zaratak) hasi gabe dauden ekintza gehien dituen lerroa da.

Jarraian, berriro formulatu diren ekintzak azaldu ditu eta sartu diren ekintza berriak adierazi ditu.

Hala ere, plan horretan egin gabe geratu ziren ekintzak kontuan hartu dira 2005-2007 Ekintza-Plan berria egin denean.

Bertaratu den pertsona batek egin duen galderari erantzunez, Edierrek ebaluatzerakoan "ekintza jarraituei" ematen zaien tratamendua adierazi du: ekintza jarraituak aldiro errepikatzen diren ekintzak dira. Urtero helburuak ezarri arren eta horien bete arren, ekintza horiek urtero errepikatzen diren ekintzak direnez, ez dira "bukaturtat" hartzen "bukutzen" baizik; eta horrek esan nahi du ezin dela %100era iritsi. Legazpiko Planean mota horretako ekintza ugari dago. Bigarren ekintza-planean zehaztasun-maila handiagoa ezartzen saiatu gara (hori bete posible ez den arren), ondoren emaitzak zorrotzasunez ebaluatzea ahalbidetzeko.

Por líneas estratégicas señala que las más desarrolladas han sido la 4 (Agua), 2 (Calidad espacio urbano) y 1 (Espacios naturales). Habría que hacer más hincapié en las líneas estratégicas 9 (Suelos contaminados), 10 (Gestión municipal), 11 (Sensibilización y participación) y 12 (Diversificación económica). La línea 8 (Acústica) es la que más acciones tiene por iniciar .

Posteriormente explica aquellas acciones que se han reformulado y las que se han incorporado como nuevas.

No obstante las acciones que quedaron pendientes en este plan se han tenido en cuenta al formular el nuevo Plan de Acción 2005-2007.

En respuesta a la pregunta realizada por una de las personas asistentes, Eider explica el tratamiento que se otorga a las "acciones continuas" a la hora de evaluar: acciones continuas son las que se repiten cíclicamente. Aunque anualmente se formulan objetivos y se cumplan, al ser acciones que se repiten todos los años nunca se consideran "finalizadas" sino "finalizando", lo cual conlleva que no se puedan computar al 100%. En el Plan de Legazpi había bastantes acciones de este tipo. En el segundo plan de acción se ha intentado establecer un mayor nivel de concreción (aunque no siempre es posible) que permita evaluar los resultados con mayor rigor.

**TOKIKO AGENDA 21EKO  
FOROAREN AKTA**

**ACTA  
FORO AGENDA LOCAL 21**

**2.- 2006.urterako aurreikusita dauden ekintzak.**

2006. urterako aurreikusi diren ekintzak 2005-2007 Ekintza-planetik atera direla jakinarazi da. Segidan, deialdiarekin batera bidali zen dokumentua denon artean komentatzeko aukera eskaini da.

Parte-hartzaile batek nazioarteko lankidetzarako eskaintzen diren laguntzen portzentaia zein den galdetu du. 2006. urtean aurreko urteko aurrekontuaren gastu korrontearen %6an finkatu da eta 2007. urtean %07ra iritsiko da.

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua arautzeko Erregelamenduari dagokionez, hasierako onspena jasotzeko dagoela jakinarazi da; ondoren hilabeteko epea emango da alegazioak aurkezteko eta, segidan behin betiko onartuko da. Bukatzeko zerbitzua esleitzeko lehiaketa kaleratuko da.

Modu berean, ULMA enpresa Legazpin ezarriko den galdetu da eta 2006ko bukaerarako asmo hori egi bihurtzea espero dela erantzun da. Lau urtetan 64 lanpostu sortuko direla aurreikusi da.

**3.- Eskariak eta galderak.**

Airearen kalitateari buruzko datuak:

San Juan auzoko eskolen ondoan eta Euskalerrria enparantzan jarri diren kabina mugikorretan jasotako datuak eskuratu ondoren, Legazpiko Udalak datu horiek interpreta ditzala eskatu zion "Mirandaola Servicios Medioambientales SL" enpresari. Segidan, datu horien laburpenarekin prestatu den orribikoa banatu da parte-hartzaileen artean eta Koldobide Olabide andreak horien azalpena eman du. Horrela, 2002. eta 2005.

**2.-Acciones programadas para 2006.**

Se comenta que las acciones programadas para 2006 se han extraído del Plan de Acción 2005-2007. Se anima a las personas asistentes a comentar el documento que se remitió con la convocatoria.

Se produce una intervención preguntando sobre el porcentaje de ayudas a la cooperación internacional. Se responde que en 2006 está en el 0,6% del gasto corriente del presupuesto del año anterior, y se alcanzará el 0,7% en 2007.

Respecto al Reglamento de funcionamiento del Servicio de Ayuda Domiciliaria se explica que se encuentra en fase de aprobación inicial y que, tras un plazo de un mes para realizar alegaciones, será aprobado. Posteriormente se sacará a concurso la adjudicación del servicio.

Asimismo a la solicitud de información sobre la implantación de la empresa ULMA en Legazpi se responde que será una realidad a finales de 2006 y que se prevé la generación de 64 puestos de trabajo en cuatro años.

**3.-Ruegos y preguntas.**

Datos sobre calidad del aire:

Una vez recibidos los datos de inmisión registrados por la cabina móvil ubicada en las escuelas de San Juan y en Euskalerrria Enparantza, el Ayuntamiento de Legazpi solicitó a Mirandaola Servicios Medioambientales, S.L. asesoramiento para la interpretación de los datos. Se reparte un díptico-resumen y Koldobike Olabide explica que, aunque los datos de 2002 y 2005 son

## TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

## ACTA FORO AGENDA LOCAL 21

urteetako datuak konparagarriak ez diren arren (epealdiak eta kokalekuak desberdinak izan direlako) joera bat markatzen dutela esan daitekeela dio. Parametro guztiak legezko mugen azpitik daude.

Parte-hartzaile batzuk diotenez, herriko enpresa inportanteenetako batzuk azken urteotan inbertsio handiak egin dituzte keak depuratzeko sistemak ezartzeko eta hori PM10 partikulen kopuruetan nabari dela uste dute.

Hala ere, beste batek dio gauzak ondo daudelako ez dela komeni bere horretan uztea eta konformatzea; izan ere, etorkizunean, hainbat substantziaren legezko mugak jaitsi egingo dira.

### EVE eta Aranzadiren azterketa:

Herriko kale desberdinetan, Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) eta Aranzadi energia-eraginkortasunari eta herriko argiek eragiten duten kutsadurari buruz azterketa egin dutela jakinarazi du Juan Ramon Larrañaga jaunak. Azterketa horretan, halaber, energiaren erabilera eraginkorragoa lortzeko hainbat oharpen jaso dira. Azterketaren emaitzak orintxe bertan aurkeztu dira udaletxean. Alkateak energia-kontsumuaren gainean benetako hausnarketa egin beharra dagoela adierazi du.

### Lantaldeak:

Alkateak adierazi du nahi eta espero zen baino jende gutxiago apuntatu dela lantaldeetan lan egiteko. Aurten martxan daude herrirako garrantzitsuak diren hainbat gai (Arau Subsidiarioak, Legazpi Bai! Proiektua...) eta horietan ezinbestekoa da

difícilmente comparables (ya que los periodos y localizaciones han sido diferentes) sí marcan tendencias. Todos los parámetros se encuentran por debajo de los límites legales.

Algunos asistentes interpretan que el hecho de que en los últimos años algunas de las empresas más importantes hayan realizado fuertes inversiones en sistemas de depuración de humos se refleja en la favorable evolución de cifras de partículas PM10.

Se produce también una intervención alentando a no caer en la autocomplacencia con estas cifras, ya que posiblemente, en un futuro próximo, los límites legales para algunas sustancias se vayan rebajando.

### Estudio EVE y Aranzadi:

Juan Ramón Larrañaga informa de que el Ente Vasco de la Energía y la Sociedad Aranzadi han realizado en las diferentes calles de Legazpi un estudio sobre eficiencia energética y contaminación lumínica del alumbrado público. Este estudio conlleva una serie de indicaciones para hacer un uso más eficiente de la energía. Sus resultados acaban de ser presentados al ayuntamiento. El alcalde señala la necesidad de realizar una reflexión en profundidad sobre el consumo de energía.

### Grupos de trabajo:

El alcalde explica que se ha apuntado menos gente de la deseada para trabajar en los grupos. Explica asimismo que este año hay varios temas de envergadura en marcha (Normas Subsidiarias, proyecto Legazpi Bai!...) en los que se requiere la participación

**TOKIKO AGENDA 21EKO  
FOROAREN AKTA**

**ACTA  
FORO AGENDA LOCAL 21**

herritarren parte hartzea. Udala Foro hori dinamizatzeko era desberdinak aztertzen ari da eta, oraindik zehaztu gabe baldin badago ere, proiektu zehatzak landuko dituen eta maizago elkartuko den lantaldea eratzea eta martxan jartzea komeni dela dirudi. Gero, gai orokorretarako Foroa osatzen duten guztiak bilduko lirateke eta, gutxi gorabehera, urtean pare bat aldiz.

Landarlan egutegia:

Joxan Auzmendi jaunak bera kide den Landarlan elkarteak Goierriko argazkiekin egin duen egutegia banatu du bertaratu direnen artean.

ciudadana. El ayuntamiento está analizando diversas formas de dinamizar este Foro y, aunque están sin determinar, parece interesante impulsar un grupo de trabajo que participe en proyectos concretos y se reuna con mayor periodicidad y convocar a la totalidad del Foro para aspectos más generales y con una frecuencia aproximada de unas dos veces al año.

Calendario Landarlan:

Joxan Auzmendi reparte a los asistentes un calendario con imágenes del Goierri realizado por la asociación Landarlan de la que es miembro.